

*IX Pediatría Topaketak.
Gaixotasun infekziosoak
historian zehar
Azkoitian, 2015eko
maiatzaren 14an*

*IX Reunión Pediátrica.
Historia de las
enfermedades infecciosas
Azcoitia, 14 de mayo de 2015*

Azkoitian, Intsausti Jauregian, hain zuzen ere, egin dira 2015eko maiatzaren 14an. Gai nagusia "Gaixotasun infekziosoak historian zehar" izan da, eta aurten Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearekin batera egin dira, Elkarte hau bere 250 urtemuga ospatzen ari da.

AURKEZPENAK, Juan Bautista Mendizabal Juaristi, EAeko Gipuzkoa Saileko Lehendakaria egin du.

Hiru HITZALDIAK aurkeztu dira. Pedro Gorrotategik, (Pasai San Pedro O.Z. Gipuzkoa) "Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak XVIII. mendean egindako baztangaren kanpaina" aurkeztu du. Mikel Basterretxeak (Gipuzkoako Epidemiologia Unitatea) "Tuberkulosia XX.mendean azken urteetan, Gipuzkoan", eta azkenik Joseba Rementeriak (Basurto Ospitalea) "Ebola XXI. mendeko infekzioa". Modu horretan XVIII mendetik XXI menderarte gaixotasun infekziosoak landu ditugu.

HITZALDIAREN ONDOREN AHOZKO
KOMUNIKAZIOAK AURKEZTU DIRA

HEMOKULTIBO POSITIBO DUTEN PAZIENTE PEDIATRIKOEN PROFIL KLINIKO-BAKTERIOLOGIKOA. 10 URTEKO ESPERIENTZIA. P. Del Río Martínez, E. Lizarralde Atristain, L. Herrero García, J. Mendiola Arza, J.M. Manterola Martija, J.I. Alustiza Martínez. *Mendaroko Ospitalea. ESI Debarena. Mendaro. Gipuzkoa.*

Helburua: Gure eskualdeko biztanleri pediatrikoan gaixotasun inbaditzaileak sortzen duten germenak eta pazienteen ezaugarri klinikoak identifikatzea.

Metodoa: Bigarren mailako ospitale batean egindako ikerketa deskriptibo erretrospektiboa, 10 urtetan (2004ko urtarrilaren 1etik 2013ko abenduaren 31ra) aurretik osasuntsu dauden paziente pediatrikoetan (0tik 14 urtetara) batutako hemokultibo positiboak biltzen dituena. Datuak historia klinikoaren bitartez lortu dira eta SPSSarekin ikertu dira.

Emaitzak: Urgentzian ikusitako 60.969 paziente eta ama berrien atalean 5908

jaio berrien artean 10 urte hauetan 54 hemokultibo positibo batu dira ateratako 1078 hemokultiboaren artean. Positibo kasu hauek 52 pazienteetan gertatu ziren, adin mediana 22 hilekoa izanda eta % 63a gizonezkoak zirelarik. %35ak urgentziako balorazioan TEParen alterazio bat zuten. 3 izan ezik, paziente guztiek sukarra zuten (45 orduko batez besteko eboluzioarekin). %50ak neumokokoaren aurkako txertoa jaso zuten.

Azterketa mikrobiologikoan 54 hemokultibo positibo lortu ziren (%46,3 *S. pneumoniae*, %18,5 *N. meningitidis*, %9,3 *S. aureus*, %5,6 *S. agalactiae*, %3,7 *E.coli*). Erabilitako tratamendu enpirikoa kasuen %98an eraginkorra zen, eta neumokoko guztiak penizilinari sensibleak (kasu bakarra egon zen erresistentzia ertainarekin baina amoxicilina dosi altuetan erabilia erantzun kliniko ona izan zuen). Diagnostiko ohikoenak neumonia (%24), sepsis/shock septikoa (%22), bakteriemia (%20) eta meningitisa (%18) izan ziren. Pazienteen %32ak zainketa intentsiboko unitatean ingresatu zuten, %23ak ospitalizazio plantan eta %44a etxera joan zen urgentziazatik. Ez zen heriotzik egon eta paziente bakar batek aurkeztu zuen meningitis neumokozikoaren ondorio bat (gortasun neurosensoriala).

Ondorioak: Gure zentruan hemokultiboaren errendimendua altua da (%5 a positiboak). Gure inguruan infekzioa bakterianoen eragile nagusia neumokokoa da (bigarrena meningokokoa) neumonia eta bakteriemia gehien erantzulea delarik. Ez dugu isolatu betalaktamikoerresistente den neumokokorik.

HIPOTONIA-ERREAKTIBOTASUN BAXUKO GERTAERA. A. Iturrioz Mata. *Oiartzun Osasun Zentroa. Gipuzkoa.*

Sarrera: Hipotonia-erreaktibotasun baxuko gertaera, txertoa jarri eta 48 ordu gertatzen dira. Gehienak, zelula osoa duten Pertusis txertoarekin gertatzen dira, baina gerta daitezke baita, zelula gabeko Pertusiarekin eta pertusis ez duten txertoekin.

Kasu klinikoa: Duela gutxi osasun zentroan eduki genuen hipotonia- erreaktibotasun baxuko gertaeraren kasu bat, aurkeztuko dizuet. 2 hilabeteko txertoen ondoren (hexabalentea eta neumokoko konjugatua)

eduki zuen gertaera, umeak. Txertoak jarri eta minutu batzuetara, haurra zurbil jarri zen. Baita tonu eta erreaktibotasun baxurekin ere. 30-40 minutu pasa ondoren estimulazioarekin kolorea eta tonu berreskuratu zen.

Iruzkina: Nahiz eta kontrako erreakzio arraroa izan, adi egon behar gara, edozein momentutan gerta daiteke eta. Gainera, denbora luzean ezaguna izan arren, gauza asko daude oraindik argitzeko.